

Komunikatua

Gaur komunikabideen aurrera agertu garen alderdi politiko eta sindikatuok iritzi publikoari geure analisia eta balorazioa jakinarazi nahi diogu ETaren berehalako armagabetzeak irekiko duen egoera dela eta. Helburu hau betetzea oso lagungarri litzateke euskal gizarte eta politikan iraganarekin lotutako epealdi bat ixteko eta aukera emango luke, biktima guztiak gogoan izanik, orainaldi eta etorkizun fase berri batean aurrera egiteko, zeinak oinarritzat bizikidetzat izango duen. Armagabetzea bakerako beharrezko urrats bat da; ezinbesteko urratsa, izan ere.

Horregatik, gure organizazioek eta herritarrek aspaldidanik nahi genuen gertatzea. Armagabetze atzeraezina, erabatekoa, aldebakarrekoa eta baldintza politikorik gabea funtsezko mugarria da bortizkeriaren amaiera prozesu ordenatu eta behin betikoaren baitan. Beraz, albiste ona dugu hau, eta sinesgarritasuna eman nahi diogu, baldintza hauetan adierazita dagoen heinean; espero dugu arrakastaz betetzea. Horregatik, beste ezer baino lehenago aintzat hartu nahi dugu urrats hau posible izan zedin bertoko eta nazioarteko hainbat pertsona, organizazio eta erakundek egin duten lana. Hemendik aurrera, gure erantzukizuna da, organizazio politiko eta sindikalak garen aldetik, hainbeste hamarkadak utzitako ondorioak gainditzea. Besteak beste, geure organizazioentzako ere erronkak dira honakoak: hitza armagabetzea; zilegizko gure gorabeherak demokratikoki eta gizalegez bideratzea, eta tirabirak kudeatzeko elkarrizketa eta negoziatioari balioa ematea. Ziur gaude, lehenago esan dugun bezala, armagabetze prozesu hau arrakastaz amai dadin lagungarria izan daitekeela instituzio errepresentatiboak, egiaztatze erakundeak eta gizarte zibila ordezkatzan duten organizazioak behar bezala artikulatzea. Gure organizazioek bakearekiko duten konpromisoa berresten dugularik, honako gogoeta eta eskariak adierazi nahi ditugu:

- ETari galdegiten diogu lehenbailehen egin dezala armagabetze ekitaldi bakarra, aldebakarrekoa, osoa, behin betikoa eta egiaztatua. Nazioarteko

Egiaztatze Batzordeari eskatzen diogu helburu hau gauzatze aldera garatzen ari den lan onarekin jarrai dezala.

- Ondo deritzogu helburu hau lortzeko gizarte zibileko pertsona eta erakundeak inplikatzeari.
- Gure Instituzioei dei egiten diegu jarrai dezaten gestioak egiten legezko eta segurtasun bermeak izango dituen azken armagabetze ekitaldia babesteko, eta honen jarraipena egin dezaten.
- Espainiako eta Frantziako gobernuei eskatzen diegu ETaren armagabetzea burutzen lagun dezatela. Azkenik, jakinarazten dugu gure organizazioak ordezkatura egon daitezkeela, erabakitzen duten eran, Baionan apirilaren 8an deituta dagoen ekitaldian, Frantziako eta Iparraldeko ordezkariak politiko eta sindikal anitz eta zabal baten ondoan.

Azkenik, jakinarazten dugu gure organizazioak ordezkatura egon daitezkeela, erabakitzen duten eran, Baionan apirilaren 8an deituta dagoen ekitaldian, Frantziako eta Iparraldeko ordezkariak politiko eta sindikal anitz eta zabal baten ondoan.

Sinatzaileak: PNV, EH Bildu, PSE, Podemos Euskadi, Ezker Anitza, Equo Euskadi, Geroa Bai, Podemos Nafarroa, Izquierda Ezkerra, ELA, LAB, CCOO, UGT, STEE EILAS, ESK, Etxalde Mugimendua, HIRU.